



EBAZPENA (Esp. 06/2008, Bizkaiko okindegiak)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, kidea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna. Idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 30ean.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia (LDEA), goian adierazitakoek osatzen dute eta Berasategi Torices jauna txostengilearen proposamenez epaia eman dute, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) ofizioz hasitako 10/07 espedienteari buruz. Espedientea uztailaren 3ko 15/2007 Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) aurka Bizkaiko okindegien sektorean ustez burutu diren jardueri buruzkoa da.

AURREKARIAK

- (1) 2008ko ekainaren 2an LDEZek LDEAri “Bizkaiko okindegiei eta horien enpresaburuen elkarteei zehapen-espedientea ez irekitzeko proposamena” bidali zion (LDEZen proposamena). LDEZen proposamenak jarduera hauek aipatzen zituen:
- (2) 2007ko urriaren 2an *El Correo* egunkarian argitaratu zen Bilboko *Jatera* okindegiko saltzaileak “Bizkaiko okinen elkarteak” bidalitako gutuna jaso zuela eta horren bidez produktuen prezioa igo zezan estutu zutela. Berri horren ondorioz, egun berean, LDEZeko zuzendariak Ebazpena eman zuen. Horren bidez erabaki zuen Bizkaiko okindegiei buruzko eta horien enpresaburuen elkarteei buruzko isilpeko informazioa hastea, LDL hautsi duten arrazoizko zantzurik ba ote zegoen argitzeko.
- (3) 2007ko urriaren 5ean, LDEZeko zuzendariak 2007ko urriaren 3an emandako ikertzeko aginduarekin bat etorriz, baimena zuten LDEZeko langileak Elkartearen egoitzara eta *Jatera* saltokira joan ziren enpresaren egoitzako ikerketa egiteko helburuarekin. Horren bidez frogatu nahi zuten Bizkaiko ogi fabrikatzaile eta banatzaileen elkarte probintzialak (Elkarteak) parte hartu ote zuten LDLk debekatutako akordio edota gehiegikeriazko jokaeretan.
- (4) Elkarteak ikuskatzen ari zirela, elkarteko ordezkariak galdetu zieten adierazpenik



egin nahi ote zuten eta haiek erantzun zuten ez zela inor estutu ogiaren prezioa igo zedin.

(5) *Jatera* saltokiaren egoitzako ikerketan bertako ordezkariak adierazi zuten bertan ez dela ogirik egiten eta saltokia ez dela Elkarteko kide. Gainera esan zuten euren hornitzaileek ematen zieten ogiaren prezioa libreki jartzen zutela. Era berean, ordezkariak adierazi zuten ez zutela Elkartek bidalitako inolako jakinarazpenik jaso, jaso zuten gauza bakarra hornitzaileek bidalitako salneurri-zerrenda izan zela eta behin eta berriro esan zuten *El Correoko* kazetariak galdetu zienean, horixe baino ez zutela esan.

(6) 2007ko urriaren 11n LDEZ berria idatzi zuen kazetariarekin harremanetan jarri zen argitaratutako informazioa egia ote zen egiaztatzeko. Kazetariak argitaratutakoari etsi zion eta elkarriketaren grabaketarik ez zuela esan zuen.

(7) 2007ko urriaren 18an LDEZek Elkarteari eta bere kideei (fabrikatzaileei/banatzaileei) errekerimendua bidali zien informazio hau eskatuz:

- Elkartek ematen ote dizkien ogiaren prezioari buruzko orientazio edo gomendiorik.
- Publikoarentzako ogiaren salmenta-prezioa jartzeko jarraitzen dituzten irizpideak.
- Fabrikatzaileei/banatzaileei: ogia saltzen duten saltokien zerrenda eta publikoarentzako salmenta-prezioen zerrenda.
- Banatzaileei: hornitzaileak zein diren eta publikoarentzako salmenta-prezioak jasotzen ote dituzten adieraztea.
- 2005, 2006 eta 2007 urteetako publikoarentzako ogiaren salmenta-prezioen zerrenda.
- 2005, 2006 eta 2007 urteetan Elkartek publikoarentzako ogiaren salmenta-prezioei buruz bidali dizkien zirkularrak edo gutunak.

(8) Fabrikatzaileen/banatzaileen % 82k (72tik 59) erantzun zioten informazioaren eskaerari eta horien erantzunek 107 establezimendu banatzaile hartu zituzten barne.¹ Elkartek ogiaren prezioari buruzko orientazioak edo gomendioak ematen ote zituen galdetzean, guztiek ezetz erantzun zuten. Prezioak jartzeko irizpideei buruz, erantzunek adierazi zuten lehengaien prezioak, bereziki ogi-irinarena (ogiaren % 75 osatzen duena, legamia, ura eta gatzarekin batera), garraioaren kostua, elektrizitatearena eta soldaten kostua direla arrazoi nagusiak. Azkenik, 2007ko azken hilabeteetan gertatutako barra handiaren (produktu adierazgarriena) prezio aldaketari buruz, erantzunek honakoa adierazi zuten:

¹ Vid., Ebazpen honen 1. eranskina [ISILPEKOA]




Barra handia. 2007ko urria Barra grande. Octubre 2007		
% prezioen igoera % incremento precios	saltoki kopurua nº establecimientos	saltokien % % establecimientos
0	17	16
4-6	13	12
6,1-8	2	2
8,1-10	56	52
10,1-12	16	15
12,1-19	3	3
Guztira/Total	107	100

(9) Emandako erantzunak aztertuta ondorioztatzen da 2007ko urrian establezimendu banatzaileen % 84k (107tik 90), enpresen % 80k (72tik 47) ordezkaturata, publikoarentzako ogiaren salmenta-prezioa igo zutela.


(10) Prezioen arteko desberdintasunari dagokionez, erantzunek erakutsi dute ogi barra berdinari salneurri desberdin ugari jarri zaizkiola. Hortaz, barra handiaren prezioa 0,42 euro eta 1,40 euro artean zegoen 2007ko urtarrilean eta kopuru desberdineko igoerak izan dituenek, orain ogi barraren prezioa 0,46 euro eta 1,50 euro artekoa da. Prezioen arteko desberdintasun hori fabrikatzaile/banatzaile berak produktuak udalerrirako desberdinetan saltzean ere gertatzen da; desberdintasuna % 50 izan daiteke.

(11) LDEZek ogiaren lehengai nagusiaren kostuaren bilakaera ere aztertu du, ogi-irinarena. LDEZen proposamenak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministerioaren Prezioen Behatokiari egiten dio erreferentzia. Bereziki, 2007ko azaroan argitaratutako “zerealen eta ogiaren prezioaren igoerari buruzko informazioa” agiriak² (Nekazaritzako Ministerioaren Informazioa) ogi-irinaren prezio igoera, ogiaren prezio igoerarekin lotzen du.

² “zerealen eta ogiaren prezioaren igoerari buruzko informazioa” Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministerioaren Prezioen Behatokia, 2007ko azaroa.
http://www.mapa.es/ministerio/pags/observatorio/pdf/precio_cereales/subida_prezio.pdf



Iturria: Nekazaritzako Ministerioaren Informazioa 1.p.



Iturria: Nekazaritzako Ministerioaren Informazioa 1.p.

(12) Nekazaritzako Ministerioaren Informazioak adierazi du jatorrizko ogi-irinaren batez besteko prezioa 2006ko urri eta 2007ko urri artean % 60 igo zela eta preziorik handiena, 265,9 €/t (eraldaketa-industriaren sarrerako prezioa), urriaren 8tik 14rako astean izan zuela. Halaber, aurreikusi du “garia igoko balitz, baina beste kostuak aldatuko ez balira, gariaren oraingo igoerak, % 60k, ogi barra gehienez % 5 eta 6 artean igotzea ekarriko lukeela”.

OINARRI JURIDIKOAK

(13) Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak, behaketako zuzendaritzaren proposamenaz, LDLko 49.3 artikuluan ezartzen du Lege horretako 1, 2 eta 3 artikuluek eta jardueren artxiiboak debekatzen dituzten jokaerak ustez burutzeak ekar ditzakeen



prozedurak ez hastea adostu ahal izango duela, arauak hautsi ez direla ikusten badu. Era berean, zortzigarren xedapen osagarriak honakoa ezarri du: “[L]ege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluari eta zuzendaritza-organoei egindako erreferentziak, funtzio, eskumen, administrazio-ahal eta prozedurei buruzkoak horiek, gaiari buruzko eskumena duten autonomia erkidegoei dagozkien instrukzioko eta ebazpeneko organoei egindakoen gisa ulertuko dira, horiek Legearen 13. artikulua ezartzen dituen eskumenei erreferentzia egiten dietenean”. Horren arabera, LDEA da LDEZen artxiboko proposamenaren gainean erabakia hartzeko organo eskuduna.

(14) LDEZen artxiboko proposamenaren gaineko iritzia emateko, Auzitegiak, sakonago aztertzerakoan, baloratu behar du LDEZen jardueretan LDLko 1.1 artikulua aurka doan joeraren zantzurik ba ote dagoen. Izan ere, artikulua horrek, oro har, merkatu nazional osoaren edo zati baten lehia faltsutzea, murriztea edo ekiditea helburutzat duen, lortzen duen edo lor dezaketen akordio, erabaki, gomendio kolektibo, adostutako jokaera edo kontzienteki paraleloak diren guztiak debekatzen ditu, bereziki zuzenean edo zeharka prezioak, zerbitzuak edo merkatal baldintzak ezartzen dituzten horiek.

(15) Hortaz, LDEZek Elkartean eta *Jatera* enpresan burututako bi ikuskapenak eta ogi fabrikatzaile/banatzaile askori egindako informazio-eskaerak ez dute agirizko ebidentziarik lehiakideen artean ogiaren prezioa igotzeko akordiorik edo erabakirik edo enpresen elkarrean gomendiorik dagoela erakusten duenik. Are gehiago, LDEZen ikuskapenak ez du erakutsi prezioak igotzeko gomendioa edo akordioa eragin zezakeen prezioei buruzko informazio-trukaketarik egon denik.

(16) Agiri edo lekuko-frogarik ez dagoenez, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak, presuntzioen froga onartzeko, hiru baldintza eskatzen ditu:

1. Oinarritzat hartzen diren funtsezko gertaerak guztiz frogatuak egon daitezela;
2. gertaeren arteko kausazko erlazioa eta zantzuak arrazoituak egon daitezela; eta
3. zantzuak azaltzeko beste arrazoiren batzuk izanez gero, arrazoiak aztertu behar dira eta horiek ukatzeko kausak azaldu beharko dira.³

(17) Hala ere, egiaztatutako gertaeretan ezinezkoa da lehiakortasunaren aurkako ustezko akordioaren erlaziozko kausa identifikatzea. LDEZek bildutako informazioak erakutsi du ogiaren prezioa, gehien, 2007ko urrian igo zela, eta horrez gain, erakutsi du (a) ogiaren igoerak eta (b) ogiaren amaierako prezioak heterogeneotasun esanguratsua dutela. Ogiaren igoerari dagokionez, saltokien % 52k prezioa % 8 eta % 10 artean igo zuen. Hala ere, egia da horietatik % 16k ez zuela prezioa igo, % 12k % 4 eta % 6 artean igo zuela eta % 2k prezioaren igoera % 6 eta % 8 artean ezarri zuela. Establezimenduetako salmenta-prezioen arteko desberdintasunari dagokionez, 2007ko urrian barra baten prezioa 0,46 euro eta 1,50 euro artekoa zen eta udalerrri bereko saltokien prezioen arteko desberdintasuna oso nabarmena zen. Prezioen igoeretan eta salmenta-prezioetan egon den berdintasun faltaren adibide gisa aipa daiteke *Jatera* enpresa. Izan ere, 2007 hasieran prentsari egindako adierazpenak direla eta hasi zen

³ Vid., besteak beste, 150/1987 Konstituzio Auzitegiaren Epaia, urriaren 1ekoa.



ikerketa hau. 2007ko urriaren 25ean prentsan argitaratu zen artikulu batek dio *Jatera* enpresak ogi barra handiaren prezioa euro 1etik 0,80 eurora jaitsi duela eta inguruko okindegi batek 0,60 eurotan saltzen duela.⁴

(18) Era berean, enpresa gehienek ogiaren prezioa 2007ko urrian igotzeko hartu zuten erabakia eta 2006ko urritik 2007ko urrira arteko epean gertatu zen ogi-irinaren prezioa % 60 igotzea, aldi berean gertatu ziren. Horrela, 2007ko urriko bigarren astean gehieneko preziora iritsi ziren. Nekazaritzako Ministerioaren Informazioaren arabera, ogi-irinaren prezioaren igoerak soilik arrazoituko zukeen ogi barraren prezioa % 5-6 igotzea, garraioa bezalako kostuak kontuan hartu gabe. Azken batean, ogi barraren prezioa % 0-10 tartean igotzea azal liteke ogi fabrikatzaileen/banatzaileen enpresek 2007an kostuak handitu zituztelako.

Aurreko guztia dela eta, aipatutako arauak eta aplikazio orokorra dutenak ikusirik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak

⁴ “Bilboko ogi barra garestienetakoa da eta jada 1,05 euro balio du”, *20 minutos*, 2007ko urriaren 25a.
<http://www.20minutos.es/noticia/296446/0/pan/caro/bilbao/>



EBATZI DU

BAKARRA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak auzitegi honi egindako proposamena onartzea. Hau da, zehapen-espedienterik ez hastea eta 2007an Bizkaiko ogiaren prezioa ezartzeko helburuarekin egindako ustezko akordio, erabaki edo gomendioei buruzko jarduerak artxibatzea.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari ezagutarazi eta Bizkaiko Ogi Fabrikatzaile eta Banatzaileen Elkarte Probintzialari jakinarazi.